

argitasunik nai badu. **Grammaire basque** eder bat ere asi zuten: zoritxarrez etzan leen zatia besterik agertu eta Lacombe'rekin egiten ari zan bigarrenaren puska bat. Onako beste au euskal-literaturai dagokio: **Bereterrets[s tilde-duna]en khantoria (La Chanson de Bereteretch)**, Bayona'n 1924. Eta ezin konta-ala dira euskerari eskeifil dizkion lan laburrak: igazko **Via Domitia'n** bazetorren bat. Begi eriek etzuten arlotik baztertu.

Irakasle azkar eta jakintsu onek bazuen beste alde bat, ezagutu duten guztiek dakitenez: neker arkituko dugu gizon oberik, apalagorik eta atsegina-gorik. Edozeifin laguntzeko prest, ondo baiño obeto artzen zituen beti gaztea-goak eta ezjakifagoak eta etzuen ifior arbuaiatu naiz orretarako biderik eman. Emen ez ezik, Tolosa'n erein zuen azia ere eztago euskerarentzat osoro galdua.

Goian bego.

L. M.

LAGUN-IZENAK: GABON ETA SANTURUN

Gerardo Lz. de Guereñu'k aldizkari ontan eman duen **Voces alavesas** lan jakingarrian, (**Euskera** III-1958, 173-367) izengoiti bezela jartzen ditu jende-izen bi: **GABON** eta **SANTURUN**: **María Gabón** (Amárita, 1594), **Santurun Mz. de Arbulu** (Lubiano, 1708), **Santorum de Arvi** (Ondategui, 1760).

Gabon egunean edo gabonetan jaioten ziran aurreri jartzen zioten **Gabon** izena («Natividad del Señor» erderaz) eta **Santurun, Santorum, Sanduru, Domu-Santuz, Domu-Santueta**n jaioten ziranai.

Ixurtza'n (Bizk.), jaiotzetako liburuan: **María Gabon de Sologuren Rementeria** (24-XII-1698), (ikusí H. V. B.: **Gabón, antropónimo euskérico**, BRSVAP aldizkarian, XV, 1959, 211-212). Santuru: Iruñe'an, **Sanduru** (1366, Rolde, Arch. Gen. Navarra); Deustu'n: **Santuru de Vengoechea** (1690: J. de Luzuriaga: «Paraninfo celeste», 8). Auek biok L. Mitxelena eta A. Irigaray'k jartzen dituzte **Nombres vascos de persona** lanean («Actes et Mémoires du Cinquième Congrès International de Sciences Onomastiques», T.º II, Salamanca, 1958). Ixurtzan: **Joan Santorum de Garay y Bilbatua** (6-XI-1958), jaiotz-lib. Iyorreta'n (Bizk.) **Santuruena** izena daukan baserri bat ba-dago.

Euskal lagun-izenai buruz ikusi: A. LUCHAIRE: **Sus les noms propres basques contenus dans quelques documents pyrénéens des XIe., XIIe. et XIIIe. siècles**, «Revue de Linguistique» XIV, 150—...; F. DEL VALLE LERSUNDI: **Una forma del femenino y el valor de la letra CH como diminutivo en los nombres de los guipuzcoanos de los siglos XV y XVI**, RIEV, XXIV, 176—..., eta **El valor de la letra CH como diminutivo en los nombres de los vascongados de los siglos XV y XVI**, RIEV, XXV, 192—...; J. DE URQUIJO: **Nombres vascos**, RIEV, V, 56-57; A. IRIGARAY: **Euskal-izenak**, «Argia»-n, 458'gn. zkn. (2-II-1930), **Les prénoms basques**, «Gure Herria» XIV, 479—..., **Contribución a la onomástica vasca**, RIEV, XXIV, 314—...; J. M.ª LACARRA: **Onomástica vasca del siglo XIII**, RIEV, XXI, 247—...; eta beste batzuk.

N. A. G.